



*Barakaldoko aireko
antzinako ikuspegia*



Etimologia eta toponomastika, diziplina fribolizatu horiek. Barakaldo, berbarako

1. Lehendabiziko ataza: kritika

2001. urtean, Barakaldoko historia linguistikoz argitaratu genuen lan baten aurkezpenan genioen hurrengo kapituluan Barakaldo izenaren etimologia argituko genuela. Urte askotxo joan dira harrezkero. Zenbait material toponimiko berri bilduta, orduko baikortasuna apalduta eta zorroztasuna

eta zuhurtzia areagotuta helduko diot orain ordudanik zorretan utzitako zereginari, aurretik toponomastikaren egoerari irakurketa kritikoa eginda.

Onomastikak, XIX. mendearen bukaeran jaio zelarik, diziplina historikotzat definitu zuen bere burua. Hizkuntzalaritza modernoa garatu zelarik, ordea, atzean gelditu zen





toponomastika¹, jaiotzetiko jite historizista horretatik askatu ezinik. Horrela definiturik azaltzen da oraindik ere hiztegi askotan². Etimologia da izaera eta joera horren sublimazioa, metodo zientifikoa oinpean hartuta gurean sasi-intelektualen denborapasa bihurtu dena. Izan ere, euskarazko toponimiari aplikatzen zaion etimologiak gutxi du zientifikotik, eta asko amateurismotik³. Gure toponomastikak dituen gaitz ugarien arteko bat da hori, baina ez txarrena, inondik ere.

Toponimia hartuko dugu, bada, oraingoan ardatz, jakinez eta berau antroponimiatik eta gainerako onimietatik bereiztea sarriegi hartzen dugun hautu arriskutsua dela. Termino lausoa da toponimia eta lausotasun hori lardaskatu baizik ez da egiten, berau tamainaren arabera txikian eta handian

bereizten denean⁴. Toponomastika, zoritxarrez, geografiarekiko morrontzapean bizi izan da luzaz eta gurean oraindik horrela jarraitzen du, adierazpen akademiko amore emangarria eta guzti⁵. Terminologiarena beste albo-kalte bat baizik ez da.

2. Etimologia, ohi baino zuhurtzia handiagoz hartu beharreko ataza

Horiek argituta, has gaitezen etimologiaz eta *Barakaldo* nukleonimoaz esateko ditugunak xehetzen. Lehendabizi geure buruari galdetu beharko genioke zertako balio

¹ Toponomastika eta antroponomastika adarreke osatzen zuten hastapenetako onomastika, gainerako onimia guztiak gutxietsita.

² "Rama de la onomástica que estudia el origen de los nombres propios de lugar, así como el significado de sus étimos" (DRAE); "La toponimia u onomástica geográfica es una disciplina de la onomástica que consiste en el estudio etimológico de los nombres propios de un lugar" <<https://es.wikipedia.org/wiki/Toponimia>>.

³ "[S]ome assiduous and imaginative aficionado or, basically, a litterateur who, like Gilles Ménage, had chosen the elucidation of word origins as a genteel pastime, a side interest, or hobby, or plain intellectual divertimento" (Malkiel, 2012: 16). Egoera hau Europan, oro har, XIX. mendearen erdialderako gairatzen hasi zen, Ménage bezalakoak, XVII. gizaldiakoa baitzen, ahanzturan utzita.

⁴ Enric Moreu-Rey onomasta katalan handia izan zen, guk dakigula, hau salatzen lehenena: "Finalment quasi tots els tractadistes han dividit també els topònims en «toponímia major» (noms de ciutats, viles i pobles) i «toponímia menor» (partidets, llocdits, etc.). Aquesta divisió no presenta gaire interès científic" (Els noms de lloc. Introducció a la topónímia, Barcelona: Unió Excursionista de Catalunya, 1965, 13). Berrikiago, José Ramón Morala-k ("Toponímia y geografía lingüística. Sobre leonés y castellano" en X. Sousa (ed.), *Toponímia e cartografía*, Consello da Cultura Galega/Instituto da Lingua Galega, Santiago de Compostela, 2010, 111) bereizketa hori "oposición inconsistente en términos lingüísticos" dugula idatzi du.

⁵ Mikel Gorrotxategik Euskaltzaindiaren izenean: "Lehenengo eta behin ikerlariari azaldu behar zaio ikerketaren ardatza lekua dela, eta ez, Euskaltzaindiak berak aspaldian egiten zuen bezala, izena" ("Toponímia ikerketak: prozedura eta urratsak", *Euskera* 53 (3), 2008, 670). Ideia zorraiztoko bera beste hirutan gutxienez haizeratu du idatziz. Premisa horrekin lan egin izan da toponomastika ofizialean azken 20 urteotan, adoktrinamendu antionomastika lau haizetara zabalduz. Ideia onomastikaren esentziaren beraren ukazioa da eta geografiko baten burutik jalgia behar zuen ezinbestean: "Ikuspuntu honetatik, ikerketa toponimiko baten oinarritzko unitatea lekua da" (Nerea Mujika, *Toponímia eta kartografía: oinarritzko eskuliburuak*. Gasteiz: Eusko Jaurraltzak, 2002, 61).



Barakaldoren bista panoramiko: Retuerto, Ansio, Ibarreta, Zuazo eta Arteagabitia. 1930

duen etimologiak. Galdera hori erantzungo bagenu, sobera genituzke egiten diren etimologia gehientsuenak eta sasi-etimologia den-denak.

Etimologia zientifikoa erlazio ezartze jardura da, forma berrien eta (zenbaitetan berreraiki edo suposatu behar dituen) forma zaharragoen arteko loturak ezartzea baitu muga (Mitxelena, 1953: 53). Honek esan nahi du etimologistaren lanak bi fase dauzkala, forma ezagun horiek aurkitzea bata, eta, berreraiketaren teknikak aplikatuz, forma ezagun horietatik hurbileneko etimora atzera egitea bestea (Bammesberger, 1984: 10). Testigantza zaharren bilaketa horretan, etimoa edo honetatik gertuko forma kausituz gero, izenaren aurrerantzako historia egiten da (Ros, 2013: 17); aurkitu ezean, etimologiaren ilunpetan barrena korritu behar, atzerantz (Mailhammer, 2013: 2), itsuka eta alderrai askotan. Lehendabizikoa falta bada edo arintasunez egiten bada, etimoa berreraikitze oinarri sendorik ez dugu eta fantasiak bete ohi du hutsunea. Etimologista zorrotzaren lana, bada, etimo hipotetikorik behar ez du-

ten forma zahar gardenak aurkituz, etimologiari ahalik eta zirrikitu gutxien uztea da. Medikua lanarekin aldera daiteke: lehendabiziko helburua eritasuna prebentzioaren bidez saihestea da, eta horretan huts egiten denean bakarrik sendatzeari ekin.

2.1. Etimologiaren mugak, ezinak eta kautelak

Kasu gardenak alde batera utzita⁶, etimologiak, zoritxarrez, ezin digu gauza handirik argitu. Nukleonimo asko eta asko Erdi Arokoak dira (Kremer, 2010: 8), Goi Erdi Arokoak zehatzago esanda. *Barakaldo*, eta horretan ez gara hain zoritxarreko, XI. mendean testatzen da, ez askoz geroago *Luxana*, *Tapia*, *Retuerto* eta *Burzeña*. Ez da nahikoa, ez digute ezertxo ere argitzen. Forma modernoak dira horiek, forma modernoen berdin-berdinak nahiago bada. Etimologian argia eman lezaketen forma zaharra-

6 "On ne peut donc interpréter des noms propres que là où l'explication est évidente" (Antoine Meillet, *Linguistique historique et linguistique générale*, Paris: E. Champion, 1921, 32).

goak behar ditugu, benetako forma arkaikoak (Mitzelena, 1953: 9). Zorigaitzez, holakoak bakanak dira gurean. Philip Durkin-ek (2009: 269-271) adibide argigarria jartzen digu begien aurrean. Ingalaterrako Worcestershire konderrian *Harvington* izeneko bi herrixka daude. Pentsa liteke **Harv(a)- + -ing + ton* etimologia argia dutela bi izenek, *Paddington*-ek **Padda + -ing + -ton* duen bezalaxe. Izen homonimo horietako bat 709. urteaz aurrera dokumentatzen da, 1275az aurrera bestea, bataren oinarria *Herewynn* dugu, *Hereford* bestearena. Erdiak erdi ustel, oso ustel ez esatearren. Pixka bat hurbilduta, Kataluniatik ekar dezakegu beste adibide adierazgarri bat. Bertan, *Arenys de Munt* eta lehendabiziko elementu hori duten hainbat izenek lat. ARENA etimoa dute, bertoko *Arenaza*, *Areatza* eta abarrek bezalaxe. Hola pentsatu izan da Alt Empordèneko *Castell de l'Areny* herri izenerako ere⁷, harik eta W. Meyer Lübke-k 1017ko dokumentu bati esker *Castro Adalasinde* baino ez zela frogatu ahal izan zuen arte⁸. Antroponimo germanikoetan oinarrituriko adibide gehiago dakarzigu Corominesek⁹.

Asma lezake inork Burgoseko *Froncea* izenaren etimologia? Ez segurki, David Peterson-ek (2017: 226) begien aurrean jarri dizkigun *Faranlucea* (947) edo *Haranluceia* (1068) bezalako formak aurrean izan gabe. Horiek aurrean ditugula, ordea, etimologia konstatazio hutsa baino ez da.

Merezi ote du, bada, dokumentazio zahar horren faltan etimologian barrena itsumustuan abiatzea? Aurrekoak bezalako kasuak ez dira hemen falta, jakina; nahiz eta guk, dokumentazio zaharrik ezean, zailagoa dugun uste okerren okerra positiboki frogatzea eta susmo hutsetatik harago joatea.

Adibide batzuk jarri aitzin, kontu inportante pare bat ekarri behar da hizpidera. Onomak bere horretan existitzen dira, erreferitzen dituzten objektuetatik libre. Hori da onomen

funtsezko beste ezaugarri bat. Barakaldo gure herria da, baina Ubideako solotxo baten izena ere bai eta –grafia gorabehera– deitura bat eta lokomotora historiko baten izena eta abar. Gainera, onomak esanahirik ez dute. Horrek esan nahi du etimologia lexikoak dituen bi oinarrietariko bat falta duela etimologia onimikoak¹⁰. Eragozpen handia da hori, inondik ere. Askoz saihestezinagoa da horregatik dokumentazio zaharrena jotzea eta askoz onartezinagoa dokumentazio modernoan soilik oinarritzea. Gurdia idien aurretik jartzea da hori, Mitxelena bere *Apellidos Vascos* obrari, bigarren edizioaren sarreran, egiten zion autokritika (1955: 5).

Barakaldo gure herria da, baina Ubideako solotxo baten izena ere bai eta –grafia gorabehera– deitura bat eta lokomotora historiko baten izena eta abar.

Holakoxeak dituzkegu Barakaldoko *Ansio* eta amarruz inposaturiko *Zuhatsu*¹¹ anakronikoa ere. *Ansio*, iduriz, forma garden samarra da, *aintzira* 'zingira' familiakoei lotua. Susmoa, haatik, ez da nahikoa, aurreiritzi baten aurrean gaudela pentsatzeko datuak ez baitira falta. XVI. gizaldiaren hasierako testigantzek¹² deitura gisa aurkezten digute izena. *Uhart*-ekin batera Nafarroatik etorria ote? *Zuazo*, bestaldetik, Arabatik datorkiguke¹³.

¹⁰ "Pero tratándose de nombres propios hay una dificultad especial: un topónimo o un antropónimo no "significa", estrictamente hablando, nada: designan simplemente un determinado lugar o una determinada persona. Y esto supone una diferencia esencial para la seguridad de cualquier consideración etimológica" (Mitzelena 1953, Introducción).

¹¹ 1025eko Donemilagako Errexan hiru *Zuhazu* aurkitzen dugularik ere, ez da baztertu behar, *h-a*, hain ugari eta polifuntzionala dokumentu honetan, *zuhaitz* elementuaren kutsadurari edo besteri zor izana. Goian aipatzen genuen *Castell de l'Areny* horretan gertatuak balio lezake Errexako hiru *Zuhazu*-etariko baten baterako ere: "però encara que l'origen del nom del castell fos el nom propi Adalasinde, l'evolució del nom s'és feta sota la influència del substantiu areny" <<http://dcbv.iec.cat/results.asp?word=areny>>.

¹² Juan de Ansio (1529, ARCHV: SV 4260/1).

¹³ García de Gortázarrek (1982: 352) postulatzen duen populazio arabarraren mugimenduen azalpena izan daitezke Bizkaian, mendebaldean bereziki, ditugun Zuazo askotariko batzuk.

⁷ ARENY sarreran dugu nukleonimoa *Diccionari català-valencià-balear* hiztegi garrantzitsuan, Alover, A. M. & F. de B. Moll (1985), Editorial Moll, 2. edizioa. 2001-2002ko edizio digitala Institut d'Estudis Catalans-en eskutik: <<http://dcbv.iecat.net>>.

⁸ "Els noms de lloc en el domini de l'adibidèsi d'Urgell", *Butlletí de Dialectologia Catalana* XI, 1923, 11.

⁹ "Noms de lloc d'Origen germànic" en *Miscel·lània Fabra: recull de treballs de lingüística catalana i romànica dedicats a Pompeu Fabra*, Buenos Aires: Casa Editora Coni, 1943, 112.

2.2. Edo zaharrenarekiko lehentasuna edo kakaren esplikazioa

Dilema baitezpadakoa da. Nondik sortua da *Lurkitzaga*? *Urkitzaga* osagaia argia bada, zer ote da hasierako L- hori? Datu dokumentalei muzin eginik, gaztelaniatzko artikuluaeren eraginezko elementu arrotza dela eta uste merke horretan oinarrituta *Urkitzaga* idatzi behar dela esatera ausartu da Mikel Gorrotxategi¹⁴. Dokumentazioari erreparatzeko lana hartu izan balu, ordea, forma zaharra *Laurquizaga* dugula ohartuko zen. Arrazoi ezberdinengatik **lau-urki-tza-aga* etimoa ezinezkoa izateari Barakaldon bertan *Olaurki*¹⁵ badugula gaineratzen badiogu, hipotesi gisa **ola-urki-tza-aga* dukegula proposa genezake. Nolanahi ere, hau hipotesi hutsa litzateke, askorako balioko ez lukeena. **Olaurkitzaga* testatzeko zoria izango bagenu, orduan, eta orduan bakarrik, adieraz genezake lasai etimo hori duela oikoinimoak. Forma hori testatuta, alabaina, sobera genuke aurretiko burutazio gutzia.

Orain artean azaldutakotik erraz uler daiteke testigantza zaharrik gabeko forma modernok, zenbait iturri idatzitakoak bereziki, tentu handiz hartzekoak direla, zuzenean baztertzekoak ez badira. Bere horretan deus gutxi balio duten testigantzak dira, are gutxiago horien gainean asma daitezkeen etimologiak. M. Á. Castañosek (1997: 454) jasotako XIX. mende bukaerako *Anchubieta*, *Andachuveta* eta ahoz jasotako *Andazubia* formak lagun, baina autore berak jasotako *Anducheveta*, *Anduchorreta* formei muzin eginda, *Andatxubieta* lema asmatu du M. Gorrotxategik (2007: 28) eta *anda'anda(k)*, *angarila(k)'* + *zubi* etimologia iradoki. Oinarri dokumental are eskasagoa erabili du Irigoienek¹⁶ (1985: 225) eta izen horretarako are etimologia irriarriagoa proposatu du horrenbestez: “[A]parece Antxu, con vocalismo de tendencia arcaizante -u, doblete de Antxi, y naturalmente bi «dos» y el pluralizador -eta, es decir, procedente de Antxu bietan

¹⁴ “Da la impresión de que las formas con L- presentan confusión con el artículo y que el nombre es Urkitzaga, que es, entre otras cosas, como se ha conservado en los apellidos” (2007: 258). Esan beharra dago, *Laurkitzategi* ez dela *Urkitzaga* deiturarik sortu ez Barakaldon, ez beste inon ere, jakina.

¹⁵ *Olurditegi* (1775, BAHF: RegHip) toponimo iluna ere jasoa dugu.

¹⁶ Eta zer esanik ez F. Fernández Palacios-ek (2002) bere tesian, ez toponimo honetaz baina bai Barakaldoko beste hainbatetaz.

«en los dos Anchu”». Saiakera antzuak, ateraldi alferrikoak. Puenting zapata-lokarri batez egitearen pareko zeregin zoroa da data horretako datuekin etimologia egin nahi izatea, onik ateratzeko aukerak hutsaren hurrengoak dira eta eroriko latza hartzekoak ia saihestezinak. Ez ote da emankorragoa eta zuhurragoa *Indauchubileta*¹⁷ eta *Anchubieta* formen arteko aurretiazko bidea marrazten saiatzea? Txarrenean ere, bi izen ezberdin direla ondoriozta liteke.

2.3. Mamuena, azken zabarkeria

Iseka eta fribolitate hauek deitoragarriak badira, mamuak eta, zer esanik ez, mamuen gainean eginiko burutazioak lotsagarriak dira. *Pucheta*, *Ascal* eta *lñirmache*, besteak beste, mamuak dira Barakaldon arrazoi askorengatik. *Pucheta* Abantoko auzoa da, baina ez dago holakorik Barakaldon. Bañalesek (1999, 2007) bildu duena *Percheta* baten irakurketa oker baten fruitua baino ez baita. Gauza bertsua esan daiteke *Ascal* mamuz, Gueñesko *Ciscal* makur irakurria besterik ez baitugu. *lñirmache* mamuari izara ikusten zaio, eite bitxiegia baitu benetako izena izateko, *Miruache* gaizki irakurria baizik ez da. Kategoria berekoak ditugu, nahiz eta beste bide batetik sortuak diren, *Errekaortu* askoz ezagunagoa¹⁸ eta Truebari zor diogun *Mendierreka*, mamuak izanagatik ere, bizitza propioa garatu dutenak.

3. Barakaldo, nukleonimo enigmatiko hori

Etimologiaren mugak eta arriskuak ikusita, ba al dago *Barakaldo* nukleonimoari buruz ganorazko ezer esaterik? Zuhurtzia, apaltasun eta tentu handienaz bakarrik. Esatekoa, zernahi gisaz, behin-behinekoa eta lanerako hipotesia baizik ezin daiteke izan. Azalirik baino ez bada ere, zenbait sorbide alterna-

¹⁷ (1615, BAHF: ProtNot.). G. Bañalesek (1999: 21, 14. oh.) *Unduchuleta* (1639, BFAH: JCR) jaso du baina *endu-* irakurtzen da eta *en [In]du-* interpretatzen. Ondoren (Bañales & Gorrotxategi 2007:99), (*En]dchuleta* zuzendurik azaltzen da DUTXULETA lemapean, baina *Endechuleta* (1649) ARRANTXULETA sarreran eta *Undechuleta* 1999ko liburuko mapan. *Ynduchubileta* jaso dugu urte bereko beste zentsu baten kopia batean (1775, BAHF: RegHip). Tx. Etxebarriak (2004: 88) beste testigantza bat bildu du: *Induch[xx]peta* (1769, BFAH: JCR), baina dokumentuarene egoera barra dela kausa, ez dugu irakurketa hori egiaztatzerik izan. XX. menderako, 1944ko Amillaramentuetan (BUA), *Induchuleta* forma kausitu dugu azkenik.

¹⁸ Oraindik horrela azaltzen da euskarazko wikipedian.



46

Lurkizagako dorretxea. Jatorrian armari bat zuen aulrealdean, puntu erdiko atearen gainean. Irudian Ampuero familiarena izandako baserria ikusten da, jatorrizko hiru metrora arteko hormen gainean eraiki zena. Egun horma zaharren aztarnak besterik ez dira mantentzen.

Ez dago izenak euskal jatorria duela baieztatzeko mendreneko oinarririk. [...] Argudio bakarrak -aldo elementua beste izen batzuetan agertzea eta Mendatan izen bereko oikonimoa existitzea izan ziren.



tibo aztertuko ditugu, denak ere posibleak baina zailtasun nabarmenekoak. Aurretik, eta berriz ere laburki ezinbestean, orain arteko saioen oinarri falta agerian utziko dugu.

3.1. Barakaldo-k ez du euskarazko jatorririk

Hasteko eta bat, esan behar da ez dagoe-la izenak euskal jatorria duela baieztatzeko mendreneko oinarririk ere. *Barakaldo* euskarazko izena izan eta ondorioz *k-z* idatzi behar zela defendatzen zuen Euskaltzaindiaren diktamenak ematen zituen argudio bakarrak¹⁹ -*aldo* elementua beste izen batzuetan agertzea eta Mendatan izen bereko oikonimoa existitzea izan ziren,

nahiz eta Mendatan Irigoienek (1985) testatu zuena *Baskaldo* zela aitortu. Euskararen bidez egin diren azalpen saioek orok²⁰ huts egin dute bata bestearen atzean eta ez du ematen biderik gelditzen denik. ****Bara** ezin daiteke inondik inora *ibar(ra)*-ren lekuan egon; ****kaldo** ez da ezer, ****kalda** (ez ****galda**) ez da 'fundizioa'; horiek, hidraulikoak zein aurrehidraulikoak edo haizeolak²¹, *olak* ziren; Goi Erdi Aroko *olak* ez zeuden ibarretan²² eta, Irigoienek dioena dioela (1985: 222) ****aldo** ez da 'altu'; eta baldin baledi izenondoa litzateke eta ez sustantiboa. Euskarazko ***aldo** baten sostengu bakarra *Basualdo* izena da, *Basaldua* eta *Mendialdua* izenen ustezko ahaidea. *Basualdo*, alabaina, izen germaniko ezaguna baino ez da.

²⁰ Txeru García Izagirrek bilduak (2013).

²¹ Barakaldo eta Gueñesko mugan bertan, *Axeola* (1586, BFAH: JCR) toponimioa daukagu, Arrigorriagan *Axola* forman errepikatzen zaiguna.

²² Bibliografia zabalaren artean, I. Etxezarraga ("Paleometalurgia del hierro en el País Vasco Cantábrico: las haizeolak. Un estado de la cuestión", *Munibe (Antropología-Arqueología)* 56, 2004, 87-104) kontsulta daiteke.

¹⁹ Formakuntzaz administratua genuen J. L. Lizundiak emana eta E. Knór-ek sinatua (<<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskerai/50582.pdf>>). Bestalde, M. Gorroategik (2007: 61), izenaren euskalduntasunaren alde, herria euskalduna izatea eta izena euskararen fonetikara ederki moldatzea ematen ditu argudio gisa. Argudio hutsalak, *Lutxana* edota *Burtzeña* ere, besteak beste, euskarazkotzat hartzea ginderamazketenak.

3.2. Barakaldo jabetza sintagma bat ote?

Latinaren bidezko azalpen saioak, azkena baita²³, beste eszenatoki batean jarri izanaren balioa du, baina zailtasun nabarmenegiak eta arrisku larriak ere bai, nukleonimo guztiak, kosta ahala kosta, deantroponimotzat hartzekoa alegia²⁴. Bide horretatik doaz Valeriano Yarzak (2015: 374) proposatu dituen [Fundu] *Baracal(i)dianu zein [villa] *Baracal(i)diona. Lehendabiziko arazoa, beste hainbatetan bezala²⁵, holako izenen balizko existentziarena dugu²⁶. *Bara* antroponimo galoaren eta *Calidius* edo *Calidus* latinezkoaren arteko batura sinesgaitz bat²⁷ iradoki du Yarzak benetako izen baten faltan, dena testuinguru erromatar batean. Esan gabe doa euskarri historiko oso ahulak dituela horrek. Latinezko izenak ez dira derri gorrean erromatarrak, izen germanikoen etnia germanikoko jendearenak zertan izen ez duten bezalaxe: *“germanismo onomástico no se confunde con germanismo étnico”* (Piel, 1960: 422)²⁸. Antroponimoak, moda eta prestigioa tarteko, neurri handi batean unibertsalak edo ubikuoak dira eta izen germanikoak, kasurako, tokian tokiko aldeak gorabahera, nagusi izan ziren Europa erromanizatuan XII. mendera arte. Hortik aurrera latinezko izenak gailendu ziren atzera ere, eliza kristauren eskutik.

Bestalde, fonetikoki sinesgaitza da *-ano*, *-ona*²⁹ izen batek sudurkariaren arrastorik utzi ez izana, ondoko *Luchana*³⁰ edo *Castrejana* izenatarako kontrakoa dugun bitartean. Are

gertagaitzagoa da hori gaztelaniarekin hain ukipen estua izan duen eskualde batean³¹. Bestaldetik, Yarzak arrazoa du, *contra* Irigoien (1985: 222), *baracaldonensis* gentiliziotik **Baracaldon* ondorioztatzen dela esatean³². Bai, baina ez derrigorrean, gaineratu beharko genuke. Ez da ahaztu behar dokumentu berean *aberancanensis* eta *esceverrianensis* ere baditugula, Berango eta Etxebarria herrien gentilizio. Beste muturrean *abadiensis* dugu **abadianensis* erregularren ordez, Abadianorako. Horrek esan nahi du, latinean izen propioekin maiz gertatu bezala, analogia kasu baten aurrean egon gaitzkeela. Horri gentilizioen joera “erratikoa” gaineratu behar zaio³³. Dena dela, garrantzitsua da *-aldon aukera agerian uztea, horrek *nomen possessoris* baten aukeraren bidea leunduko bailiguke.

Jabetza sintagmak [“poseduto”] + “possessore” binomioaz osatuak dira. Askotan, poseduto-a eliditurik doa, baina agerian bestetan, onoma “eliptikoak” eta “integralak” sortuz hurrenez hurren. Pontevedrako *Barzamedelle* (< **Barza Metelli*) genuke onoma integral paralelo egokia (Piel 1985: 471). *Barakaldo*-n, possessore-a *Metellus* ez baina *Aldo* zein *Aldon* izan liteke, *Aldoni* genitibo latinaren arrastoa urrean. *Ald-* erroko³⁴ *Aldon(i)* ondo testatua da Katalunian³⁵ eta Frantzian³⁶. Poseduto edo “nomen possessi”-a **baraka* genuke, port. *várzea*, gal. *barzia*, ast. *bárcena*³⁷, gazt. *varga*³⁸ lexemen familiakoa –eta akaso baliokidea– izan litekeena. Zentzua, eta horregatik bilatu nahi izan zaio jatorri komuna ere, eusk. *ibar* lexema-

23 V. Yarzak garatu eta moldatu du berrikitan (2015), baina orain 20 urte pasatxo osagai bertsuak proposatu zituen F. Villar-ek (1996) eta F. Fernández Palacios-ek (2002: 883) bere egin: *“Para Baracaldo en concreto ha propuesto Villar: «Teónimo lusitano Reve»: 174 que posee una estructura paralela al NL oscense Baraos, con -os del vasc. otz, otze “frio”. Baracaldo estaría compuesto de “bara y el lat. calidus, añadiéndose así un adjetivo al sustantivo bara «para calificar su temperatura».*

24 Nukleonimoen sorburu garrantzitsua da hau, baina ez bakarra.
25 F. Muguruzak (2004) arinerik osoz asmatu duen *Bar(i)us* + *aka*, kasurako, inolako oinarririk gabeko fantasia hutsa da.

26 *“A escaseza de documentación que avale a existencia deses supostos étnicos antroponímicos ou, cando menos, do seu uso efectivo”.* Galicia zaharriari buruz ari da G. Herno González (*“Topónimos de base Sarand- e Serant-: unha hipótese etimolóxica común”*, *Revista Galega de Filoloxía* 14, 2013, 65), baina ondorioak bete-betean balio du gurerako ere.

27 F. Fernández Palacios-ek (*ibid.*) aurretik iradokia zuen honetako zerbait: *“En onomástica personal antigua hay Bara (CIL XII 4966, de la Galla Narbonense) y Baracionis (gen.) (CIL III 2749, del Ilirico)”*.

28 Arrazoi historikoengatik eta beste askorengatik baztertu behar da deblauki F. Villar-ek mahairatu zuen (*Reve*) *Anabaraco* –eta honi jarraitki Carretier-en *Baraco*–epiteto teonimiko zeltiarrenganako hurbilketa (1996).

29 Deantroponimiarikoki baina gehiago, deadjektibo antroponimoeiko seta da gure artean azken urteetan gailendu dena. Gogoratu behar da bestetan genitibo egitura dela nagusia eta ez *-ano*, *-ona* ... bidezko hau. Lugoko Begonte kontzejuan, konparazione, % 82 dira genitibodunak (P. Martínez Lema, “Nomes de posesor na toponimia do concello de Begonte (Lugo)”, *Revista Galega de Filoloxía* 8, 2007, 129).

30 *Lutxea*, *Lutxa* ahozko formak dokumentazio modernoan aurkitu ditugu.

31 Sestao izenerako ere jatorri bera ematen tematu da P. Salaberrri, *Sesto* aldaera zaharra *Galdako* bezalako ahozko forma modernoan parean jarritu.

32 *“Parece que Barakaldo debía poseer -n- en la sílaba final, ya que en el primer documento, de 1051, en que se hace alusión a la localidad se registra [...] como testigo, entre otros, el señor Lope Blasco Baracaldonensis”* (2015: 374). Balpardak, oker, *Baracaldensis* ematen du; forma horixe da, bestealde, hiru urte geroago San Agustín Etxebarriko dokumentuan aurkitzen duguna.

33 Cf. Jairo Javier García Sánchez, “Irradiación analógica en la formación de gentilicios”, *Vox Romanica* 64, 2005, 160-170

34 Germanistek *Ald-* eta *Wald-* erro antroponimikoak bereizten dituzte, lehen ing. *old* hitzarekin lotua eta got. *walten* ‘gobertau’ hitzarekin bigarrena (Piel & Kremer 1976). *Bald-* (< **balp* ‘ausart’) erroliokoen artean *Baldo*, *Baldun(i)* eta Katalunian *Balon(e)* aurkitzen ditugu (Bols & Moran 1994, 308, 161; Carlos Rizos, “Toponimia de origen germánico en la Baja Ribagorza Occidental”, *Alazet* 17, 2005, 202). Gure *Aldana* ugarietan ere –Alonsotegiakoa hurbilena–, auki genezake erro hau, penintsulako ipar-mendebaldean aurkitzen diren *Aldana*, *Aldano* toponimoen saillekoa bada eta Head & Seménova zuzen badaude.

35 Bols & Moran, 1994: 99.

36 Head & Seménova-Head, 2013: 268.

37 Penintsulako mendebaldeko forma hauek, J. Hübschmid-ek (1960, 48) zehazki dioenez, **vargina* eratorri batetik sortuak dira. Añibarrok dakarren *markin* ‘quadro de jardín’, *huerta* ‘*margin*a da –erdiarabiz erabili– Erandioko dokumentazioan eta Barakaldorako “una pieza de heredad de Marquifia” aurkitu dugu (1847, BAHP: RegHip).

38 Abanto-Zierbenan bertan *La Barga* auzoa dugu.



Lutxanaren airetiko ikuspegia. 1960

Bi gauza bakarrik eman daitezke seguru samartzat: aurreko etimologiek funtsik ez dutela bata eta bi elementuk osaturiko izen konposatu baten aurrean gaudela bestea.



rena genuke: 'ibai edo erreka baten ertzeko lursail landua eta itxia' edo honekin loturiko beste zentzuren bat.

Ezaguna da, alabaina, forma eliptikoak direla sarrien ematen direnak. Antroponimo ditomatiko batean pentsatu beharko litzateke orduan. Lehen osagaia, *Blasco* izan liteke, Lope Blascoz Baracaldonensis gure lehen barakaldar historiaratuaren patronimikoan ageri dena. *B(e)lasco*, Nafarroatik ezker-eskuinera zabaldua, *Bela* (< germ. *Be(g)ila*) antroponimoaren eratorritzat hartu izan da. *Belasco*-ren forma sinkopatua dukegu, ez badugu **Blasco*³⁹ formatik zuzenean abiatu nahi.

³⁹ *Blas* izenak lat. *Blasius* du oinarri. Eratorpen hau J. B. Orpustanek defendatua du, "Anthroponomastique médiévale en Pays Basque. Prénoms et surnoms en Basse-Navarre et Soule au début du XI^e siècle (1305-1350)", *Lapurдум* 5, 2000, 203.

**Blasc(o)-(u)aldo* konbinazioa ineditoa dugu, baina ez konposabidea, ez elementuak. Antroponimo horretatik **Balascaldo*⁴⁰ aterako zen eta honek Mendatako *Baraskaldo* emango. *Barakaldo*-k horren aldaera sinkopatua beharko luke orduan, eta honen aldaera aferetikoa genuke *Arakaldo*. Bide posiblea baina euskarri dokumentalik gabea.

Forma testatuetatik ere abiatu gaitzke, baina bidea fonetikak behaztopatzen du orduan. *Baroaldo* edo *Basoaldo* Palentziako apezpikua izan zen VII. mendearen bukaran. *Barualdo* (1012, 1044) eta *Barbaldo* (878) aldaerak ere dokumentatuak dira. *Baroaldo* izenaren -o- *Waldo* "Zweitstämme"aren bokalerdia bokalizatua izan daiteke

⁴⁰ *Balasco* forma ere ondo dokumentatua da.

(-w- > -o-), baina segurua "Fugenvokal" edo lotura-bokal bat, zenbaitetan -a- dena. Hauek horrela, **Bar-a-waldo* > **Baragualdo* > **Baragaldo* > **Baracaldo* postula behar genuke edo zuzenean *Barualdo* > **Barugaldo* > **Baragaldo*, Barakaldon bertan testatua dugun *Zuatz* > *Çugaçu* (1616-17, JCR) izenean bezalaxe, azkenik bokal asimilazioa⁴¹ emanda. Nolanahi dela, bide antroponimiko hauek -testatu gabeak denak ere-, **Baracaldoni* genitiboa eskatzen dute, goian aipatu **Baracaldon* formaren gainean eraikia. Barakaldotik oso gertu *Galindo* dugu, hau ere antroponimo ustez germanikoa, *Galindoni*, *Galindone* formetan geografia zabalean erruz testatua⁴².

3.3. Jabetza sintagma ez bada, delexikal bat ote?

Jabetza egiturarik ez bagenu ere, oinarri lexikala posiblea genuke. Kasu horretan, -*ldo* bukaera *-*ledo* (< *-*letu*) sekuentziaren emaitza izan liteke, bokal postonikoren galera gertatuta. Sekuentzia hau bi sufixuren elkarketa da, aipa bitez *figaredo*, *pinaledo*, *pomaledo*... fruta-arbolen sailak ditugunak, euskarazko *intxausti*, *sagasti* edo *urresti* lexemak bezala, 'fruitua' + 'arbol' + 'saila' konposaketari dagozkionak. Bide itxia.

Beste sorbide bat **Barakalado* partizipio bat genuke, formaz eta zentzuz, *estacada*, *cerrado*, *vallado*, *empalizada*; eusk. *zarratu*, *palatu*, *hesi*⁴³ lexemen kidekoa⁴⁴. Partizipioak **bracal*, **barcal* 'hesol, taketa' etimoan oinarritua beharko luke, *estaca* > *estacar* > *estacada*; *palo* > *empalizar* > *empalizada* ereduaren arabera. Egiaz, hori dugu BRAKA, BARKA etimoak adierazten duena, baina itxitura berezi bat, erreka ondokoa edo neguan urak estaltzen duen lursail baxu batena. Zentzu horrexekin Galizian *bargado*⁴⁵

41 Zugazua izenean ere bokal asimilazioa (> *Zugutzu*) orokorra da ondoko herrietan (Begoña, Deustu, Erandio...). Itxurak itxura, asimilazio bera da kasu bietan, muturreko bi bokalek erdikoa asimilatuz: u-a-u > u-u-u *Zugutzu*-n eta a-u-a > a-a-a *Barakaldo*-n.

42 Ikus, kasurako, Bolós & Moran 1994, 308.

43 Infinitibo-partizipio zaharra bide da, sustantibizatua, *herts*-tik datorkeena.

44 Gure hurbileko ibixuren osagai eta osaketaz Glaria (2003: 66) kontsulta dalete.

45 DDLG.

daukagu eta *várgano* oinarriko *varganada*⁴⁶ Asturiasen. *Vara* / *varal* alternantzia bera genuke *barga*,-o / **bargal* parean, esanahi aldaketarik gabe. Gogora bedi *vara* lexemaren aurrekaria *verga* dugula, *varga*-ren kuasi homonimoa. Liébanako *bargaretu* 'abelgorrientzako korta' lexema ere hizpidera ekartzekoa da, -*retu* sekuentzia guztiz argia ez bada ere.

Forma delexikaletik abiatuta, +2 azentuaketa bat postulatu behar dugu (*Brak-* / *Bark-* > *Barak-* epentesiaren aurrekoa). Horrek bokal postonikoren galera azalduko luke: **Brakálado* > **Brakaldo* (edo **Barkálado* > **Bar-kaldo*), ez oso urrutiko *Gallárreta* > *Gallarta*-n hautematen duguna.

3.4. *BARKA etimoa

Hitz familia arras interesgarria dugu *BARKA edo *BRAKA etimoak eman duena. Epentesi bokaliko arrunta bitarte, bietatik atera zitekeen **baraka*. Gazt. *varga*⁴⁷ eta familiakoen etimoa, zeltikoa bide dena, *BARGA, *BARKA, *BRAKA edo *WRAGA ote den ez dago garbi⁴⁸, ezta jatorrizko esanahia eta bat ala bi diren ere. Horrek bilakaera fonetikoa zehaztea zailtzen du batetik, bai eta sortzez **b(a)raka*⁴⁹ oinarriak zuten zentzua asmatzea ere. Zailtasunak detailekoak dira. Guztiarekin ere, testuinguru erromantzea argia da. Bat dator hau goi erdi aroko onomastika bizkaitarrean aurkitzen dugunarekin⁵⁰. Nafarroan *bar-ga* euskaraz ere usu erabili izan da, to-

46 DGLA. Portugaleko *Vargaado* toponimoak (1474, Armando de Almeida Fernandes, *Toponimia portuguesa: exame a um dicionário*, Arouca: Associação para a Defesa da cultura Arouquense, 1999, 78, § Bragada) "varganado bide du jatorri."

47 "Palabra antigua y dialectal, poco generalizada y de significados varios" (DCECH). Hitzaren lehen testigantza, Araban eta Errioxan, Donemilgako kartularioan.

48 "Pensaba primero Jug en un galo *wraga... pero no dejaba de presentar dificultades; pero J. Loth señaló el parentesco con iri. med. barc 'casa de madera'... lo cual permite postular un galo *BARCA del mismo sentido, con -c- conservada en las variantes fr. barche, sobresev. barcun... it. barchesa y quizá en el nombre de lugar cast. e it. Barco. Esto simplifica las cosas... En verdad subsisten ciertas dificultades, pues el cambio fonético en cuestión suele producirse en el sentido de cambiar una rg primaria en rc, mientras que la raíz indoeuropea de que se trata tiene rc originaria. [...] De todos modos, el origen céltico sigue siendo posible, pues hay que contar con la posibilidad de una mezcla en romance de los dos parónimos *BARCA y *WRAGA, lo que allanaría todas las dificultades" (DCECH). Aurreeraxeago: "También es cierto que hay casos sueltos de alternancia rg -rk en vasco y en hablas romances lindantes, de modo que la posibilidad de que venga salga de un *BARCA no debemos descartarla del todo" (ibid.)

49 Formarako bareca 'egurrezko dendá' (Alpes, 166; Hubschmid, 1960: 45) eta Landetako barráka 'jardineko hesia' (ibid., 46) aipa daitezke. Erromanista suitzarrak **barricus* batetik zekartzan guzti hauek.

50 "En torno al cambio de milenio, vemos un espacio aparentemente vascofónico pero también más cercano onomásticamente a los territorios al ponente y con menor incidencia de la antroponimia típica de Navarra" (Peterson, 2012: 804).

ponimiak⁵¹ agerian uzten duenez, baina erdarazko hitza zelako kontzientzia ez da falta izan⁵².

Haatik, hitzaren jatorria euskarazkoa dela defendatu izan dute sona handiko zenbait filologok⁵³. *Vega*-ren forma zaharrak *veiga*, *vaica* direla egiaztatetik dator dena. Euskarazko *ibai* lexemari erreparatu zioten laster, nahiz eta esanahia hitz horrena ez baina *ibar*-ena zuen. Nolanahi ere, *ibai* eta *ibar* gauza bertsua zirela suposatu zuten, *bizkai* / *bizkar* ziratekeen bezala. Hala, *IBAIIKA eta *IBARKA etimoak proposatu zituzten *vega* eta *varga* lexemetarako hurrenez hurren. Egia da *ibar*, *vega* eta *varga* lexemak, oro har, sinonimotzat har genitzakeela. *Vega* eta *varga* lexemek, bestalde, sufixua edo azken silaba behintzat komuna dute, eta *ibar* eta *varga* lexemek silaba bat dutela berdina, hasierako hitz erromantzearen kasuan, bigarrena euskaran.

Hor amaitzen dira antzekotasunak. Nekez har daiteke euskarazkoa erromantzezkoren etimotzat. Etimologiaren tradizio luzea eta berau defendatzeko Corominasen suhartasuna gorabehera, askoz sinegarriago suertatzen da V. García de Diegoren azalpen prosaikoagoa: lat. *VADĪCA [TERRA]. Euskarazko formekin erlazio etimologikorik egotekotan, alderantzikoa beharko luke. Euskarak *i-barga bihur zezakeen *varga* eta ondoren -ga silaba, artikulutzat berrinterpretatuta agian, galdu. Euskaran ez dago *ibarka hitzaren arrastorik eta -ka ez da osagai ezaguna⁵⁴, *txaraka*, *mailuka* eta holako hitz batzuetan ageri zaigun txikigarria salbu⁵⁵.

Zailtasunak gutxi balira, esan behar da *ibai* eta *ibar* hitzek elkarren lotura izatea frogatuta egotetik urrun dagoela. Mitxelenak (1972:

51 Bat bakarra aipatze aldera, Barakaldoko *Malacuesta* gogora dakarkigun *Bargamalakuarri* (Araia) alpa daiteke. Aitsasuko euskaran *barga* gaizto ezagutzen zuten, Entziako *Bargaristo* toponimoan aurkitzen duguna bera nonbait.

52 Azkue, *Apend. Adlerazgarria* izan liteke gure artean *ibarra* erdaraz hain sarri erabili izana. Barakaldorako bertarako *las ybarras* de Gorostiña (1644, BAHp; ProtNot) eta Gueñeserako *las Ibbars* (1717, BAHp; ProtNot) aurkitu ditugu.

53 Menéndez Pidal, Schuchardt, Hubschmid eta Piel, besteak beste.

54 Corominas, nahiz eta euskarara ongiro ezagutzen zuten, oker dabil -ko, -ka sufixu posesibo bat proposatzean. Zentzuz ere ez litzateke ongi egokituholako sufixu bat.

55 Ballo adberbiala ere badu, jakina (*jauzika*, *oihuka*...); baina ez da hori inondik ere beharko genukeena. V. García de Diegok ongi oharierazten duenez: "Habla que supone *iber* ibatica, que existe, pero no con el sentido de 'vega', sino con el sentido adverbial de 'a torrentes'" (DEEH: #7007).

81) **ibar*-Xi > **iba*Xi > *ibai* postulatzen du, baina hori ere arazotsua da bai fonetikoki⁵⁶, bai morfologikoki⁵⁷, bai semantikoki⁵⁸. *Ibai* lexemarako **ibani* protoforma proposa liteke, Bilbaoko *Ibeni* toponimoan gorderik gendukeena. Forma horrek, sudurkaria galtzean, **ibahi* forma emango zukeen, bai *hibai* aldaera hasperenduna⁵⁹, bai *ibatao*⁶⁰, *ibetondo*... eratorriak egoki azalduko litzukeena.

3.5. Ondorioak

Aurkeztu ditugun etimologia guztiek argi-ilunak dituzte. Bi gauza bakarrik eman daitezke seguru samartzat: aurreko etimologiek funtsik ez dutela bata eta bi elementuk osaturiko izen konposatu baten aurrean gaudela bestea. Lehen elementurako, **baraka* lexiak etimologia argia izan dezake baina forma horrekin ez dugu geure inguruan aurkitzen, ez euskaran ez erromantzeetan ere. Horren alternatiba sinesgarriena *B(a)lasko* antroponimoa dugu. Euskal Herrian forma ezberdinetan oparo testatzen da, lehen barakaldar historiatauren *Blascoz* patronimikoan kasurako. Bigarren elementua azaltzeko aurkitu dugun aukera bakarra (*W*)*aldo(n)* antroponimoa da. Gauzak horrela, onomastika germanikoan usadiokoak diren antroponimo ditematikoetako baten aurrean geundeke. Iluna, kasu horretan, bi tema horien konbinazioaren bitxitasuna dugu. Ilun-milun hauek argitzeko bide bakarra dugu: geure inguruko antroponimia zaharra zehazkiago ezagutzearren etengabe jardutea.

56 Dardarkariaren galera ere nekez azal liteke, x hori zehinahi izanik ere.

57 Ez dago esanahi aldaketa hori, azal dezakeen inongo sufixuren arrastorik, ez xi forma horretakorik ez bestelakorik. Azkue *ibargi* 'terreno soleado' biltzen du Arrasaterako, akaso bigarren elementua *argi* duena.

58 Semantikoki, *ibai* primarioa eta *ibar* sekundarioa izatea espero genuke beti, *ibetondo* (< **iba(h)l-ondo*), *ibaondo* hitzaren eredu, eta ez alderantzien. Itxurak ibura, esp. *rio* (lat. *ri(v)us*) eta *iberia* (lat. *IBERIA* < *RIPIA*) pareak ez du elkarren lotura etimologikorik. Gure inguruko hizkuntzetan behintzat, ez dago holako parearik. Izan ere, *ibar* hitzaren zentzua (ing. *meadow*, port. *veiga*, *várzea*, esp. *vega*) lotuago dago 'lantzen den zelai ondo ureztatu' kontzeptura 'ibai ertz'-era baino. Horrela *ugaran* lexemak, *ibar*-ek bezala 'auzo' adiera garatu duenak, (Deustun *ogena*; Saraitzun *ugalaran* eta *ugaondo* Lesakan, *apud* Azkue) urari egiten dio erreferentzia eta ez ibaiari; gauza bera *uhalde*, *ugalde* nahiz eta honek bai 'ibai' zentzua ere hartzen duen.

59 Joseba A. Lakarrak ("h3 > h1, *h2 > h1 eta horiei datzekien zenbait fenomenoz", *Lapurdum* 13, 2009, 211-231, eta beste lan batzuetan) maisuki azalduko hasperenaren aurrerapena tarteko, *arena* > **areha* > *harea* eduerari jarraiki.

60 Etxebarrin eta Aulestian izen horretako errokat dokumentatzen dira, Getxon baserria zen *ibatao* eta Arrasaten eta Arabako zenbait lekutan izen horretako solokagintuen. Itxuraz **iba(h)l(a)ho* du jatorria, *Lasao* (Alonsotegi, Galdakao, Azkoitia...) zabalduaren pare-parekoa.

4. Erreferentzia artxibistikoak

ARCHIVO DE LA REAL CHANCILLERIA DE VALLADOLID (ARCHV)

BARAKALDOKO UDAL ARTXIBOA (BUA)

BIZKAIKO ARTXIBATEGI HISTORIKO PRO-BINTZIARRA (BAHP)

BIZKAIKO FORU AGIRITEGI HISTORIKOA (BFAH)

5. Erreferentzia bibliografikoak

1984: BAMMESBERGER, Alfred: *English etymology*, Carl Winter Universitätsverlag, Heidelberg

1999: BAÑALES, Gregorio: *Mayorazgos de Barakaldo*, Ediciones de Librería San Antonio, Barakaldo

2007: BAÑALES, Gregorio & Mikel GORROTXATEGI: *Toponimia histórica de Barakaldo*, Ediciones de Librería San Antonio, Barakaldo

1990: BDELIC = COROMINES, Joan: *Breve diccionario etimológico de la lengua castellana*, Gredos, Madrid

1994: BOLÒS, Jordi & Josep MORAN: *Repertori d'Antropònims Catalans (RAC)*, vol. 1, Institut d'Estudis Catalans, Barcelona

1980-1991: DCECH = COROMINES, Joan & José A. PASCUAL: *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*, 6 vol., Gredos, Madrid.

2006-2013: DDLG = SANTAMARINA, Antón (coord.): *Diccionario de diccionarios da lingua galega*, Instituto da Lingua Galega <<http://sli.uvigo.es/ddd/index.html>>

1954: DEEH = GARCÍA DE DIEGO, Vicente: *Diccionario etimológico español e hispánico*, Editorial Saeta, Madrid

2017: DGLA = GARCÍA ARIAS, Xose Lluís: *Diccionario general de la lengua asturiana*, Editorial Prensa Asturiana <<http://mas.lne.es/diccionario/>>

2009: DURKIN, Philip (2009): *The Oxford guide to etymology*, Oxford University Press

1997: CASTAÑOS, María Ángeles: "Barakaldoko muinetan arakatzen" en *II. Onomastika Jardunaldien Agiriak/Actas de las II Jornadas de Onomástica*, Euskaltzaindia, Bilbao, 447-519

2004: ETXEBARRIA, Txomin: *Orígenes históricos de Barakaldo. Siglos XI-XIV. Toponimia y lengua propia*, Ediciones Beta, Bilbao

2002: FERNÁNDEZ PALACIOS, Fernando: *Lengua e historia del Asón al Cadagua (épocas prerromana y romana)*, tesis doctoral, Madrid: Universidad Complutense

1982: GARCÍA DE GORTÁZAR, José Ángel: "Espacio y poblamiento en la Vizcaya altomedieval: de la comarca al caserío en los siglos XI al XIII" en *Actas de las II Jornadas de Onomástica*, UCM, Madrid, vol. 1, 349-366

2013: GARCÍA IZAGIRRE, Txeru: "Acerca del topónimo Barakaldo" <https://www.academia.edu/15692311/Toponimo_Barakaldo_Estudio_histórico_y_lingüístico>

2003: GLARIA, Carlos: *Muskiz. Historia y toponimia de un Concejo del Valle de Somorrostro*, Muskizko udala

2013: HEAD, Brian F. & Larisa SEMËNOVA-HEAD: "Vestígios da presença sueva no noroeste da península ibérica: na etnologia, na arqueologia e na língua", *Diacrítica* 27 (2), 257-277

1960: HUBSCHMID, Johannes: "[Lenguas no indoeuropeas] Testimonios románicos" en *Enciclopedia Lingüística Hispánica. Tomo 1: Antecedentes y onomástica*: CSIC, Madrid, 27-66

1985: IRIGOYEN, Alfonso: "Las Lenguas de los vizcaínos: antroponimia y toponimia medievales" en *Congreso de estudios históricos: Vizcaya en la Edad Media* [Bilbao, 17-20 diciembre 1984], Eusko Ikaskuntza, 201-249.

2010: KREMER, Dieter: "Toponimia de España – Toponomástica de España" en M. D. Gordón (coord.), *Toponimia de España: Estado actual y perspectivas de la investigación*: De Gruyter, Berlin, 5-29

2013: MAILHAMMER, Robert (2013): "Introduction: Etymology beyond word histories" en R. Mailhammer (ed.), *Lexical and Structural Etymology. Beyond Word Histories*, Walter de Gruyter, Berlin, 1-7

[1983] 2012: MALKIEL, Yakov: *Etymology*, Cambridge University Press

[1953] 1955: MITXELENA, Koldo: *Apellidos Vascos*, San Sebastián: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, 2. ed., 1955

2010: MARTÍNEZ LEMA, Paulo: "Toponimia, etimoloxía e fontes documentais: algúns exemplos do Tombo de Toxos Outos", *Interlingüística* 21, 632-642.

1972: "Léxico vasco y etimología" en *Beitrag zur Romanistik und allgemeinen Sprachwissenschaft: Festschrift Wilhelm Giese*, Hamburg, 79-95

2004: MUGURUZA, Felix: "Etimologías: Los nombres en su versión original", *Aunia* 8, 6-24

2012: PETERSON, David: "Antroponimia vasca altomedieval: la aportación epigráfica" en Arízaga et al. (ed.), *Mundos medievales: espacios, sociedades y poder. Homenaje al profesor José Ángel García de Cortázar y Ruiz de Aguirre*, Publican, Santander, vol. 1, 795-806

2017: "Estratos vascos y árabes en la onomástica castellana altomedieval. La toponimia del cartulario de Froncea" en E. Ramos & A. Ros (arg.): *Onomastika, Hizkuntza eta Historia. Ricardo Cierbideren omenezko estudioak/Onomastika, Lengua e Historia. Estudios en honor de Ricardo Cierbide*, Onomastika Elkarte, Bilbao, 215-234

1960: PIEL, Joseph M.: "Antroponimia germánica" en *Enciclopedia Lingüística Hispánica. Tomo 1: Antecedentes y onomástica*, CSIC, Madrid, 421-444

1985: "Sobre os topónimos gal. "barja/barza, port. "varge/vargem/várzea", ast. "barzena/barzana" e outros afíns do noroeste da Península Ibérica", *Grial* 90, 471-474

1976: PIEL, Joseph M. & Dieter KREMER: *Hispano-gotisches Namenbuch*, Carl Winter · Universitätsverlag, Heidelberg

2013: ROS, Ander: "Apuntes críticos de onomástica vasca" <https://www.academia.edu/5627526/apuntes_críticos_de_onomástica_vasca> [10/12/2016]

2001: ROS, Ander & Esperanza SAIZ: "Barakaldo eta Enkartzazioen historia linguistikoaz", *Litterae Vasconicae* 8, 47-117

1996: VILLAR, Francisco: "El teónimo lusitano Reve y sus epítetos" en W. Meid - P. Anreiter (ed.), *Die Grösseren Altkeltischen Sprachdenkmäler*, Innsbruck, 160-211

2015: YARZA, Valeriano: "Notas sobre toponimia de origen romano en Bizkaia", *FLV* 120, 345-384



Susunagako
dorretxea

